

Getxo >MEETING<



Getxo MEETINGen laburpena, martxoak 30

Horrelakoa izan zen zure proiektuei forma emateko pentsamendu bisualari buruzko saioa

Proiektu bat bisualki islatu ahal izateak lagun zaitzake, hemen azalduko dizugu zergatik:

Idea bat izateak eta buruan bakarrik garatzeak arriskuak izan ditzake. Argitasunik eza ager daiteke, eta, horrekin batera, zehaztasunik eza.

Ekiteko, beharrezkoa da ideiei buruzko ikuspegia lortzea eta kalitateko denbora eskaintzea. Ideiaz hainbeste ez maitemintzeko adina perspektiba lortzea, maitasun hori itsua baita. Ezin duzu ikusi zer ez duzun kontuan hartzen. Eta horretarako, lantzeko uneak blindatzea oso garrantzitsua da.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica/

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Zerbait martxan jartzeko denborarik ez dugula esaten dugunean, batzuetan gertatzen zaiguna da ideia buruan baino ez garela lantzen ari. Beraz, hainbeste pentsatuz gero, buruak berak zenbait oztopo asmatzen ditu, egiazkoak izan ala ez, aurrera egitea eragozten digutenak. Ez al dugu astirik edo ez al dugu indarririk ideia konplexu hori burutik atera eta benetako urratsak emateko?

Pentsatzea ez da nahikoa. Kalitatez eta argitasunez egin behar da. Kalitatea, ideian murgiltzeko denbora zehatza eskainiz. Argitasuna idaztea da, marraztea, partekatzea. Nonbaiten islatzea.

Horrek zure jomugetarantz arreta handiagoz aurrera egiten laguntzen du, eta pentsamendu-mataza askatzen du. Horrela, gure buruak kontatu dizkigun zailtasun posibleek indarra galtzen dute, eta ez gara ideian zentratzen, gauzatzean baizik. Horixe behar da ideiei bueltak emateari utzi, eta ekintzan hasteko.

Izan ere, ideia platonikoak itxuraz zoragarriak dira, baina askoz hobe da zerbait martxan jartzea jakinda ez dela perfektua izango, baina izango da.

Eman denbora bat zure ideiak islatzeko eta ikusiko duzu nola aldatzen duzun perspektiba.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica/

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

